

# Lan-zuzenbidea eta gune ilun gisa kalifikatutako harreman juridikoak (III): bekak ezkutuko lan-kontratu gisa kalifikatzeko froga-gabezia

FRANCISCO JAVIER ARRIETA IDIAKEZ  
Deustuko Unibertsitateko lan-zuzenbideko  
eta lan-arriskuen prebentzioko irakaslea

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 2010/12/30

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 2011/06/20

**Resumen:** La distinción entre becas y relaciones laborales sigue siendo un arduo problema ante la falta de una respuesta adecuada en el ordenamiento jurídico español. De ahí que tanto la doctrina como la jurisprudencia iuslaboralista ubiquen a las becas en las denominadas zonas grises.

Por desgracia, a la dificultad de deslindar ambas instituciones se le suele sumar con demasiada frecuencia una actuación no acorde a la realidad de los hechos por parte de las distintas autoridades tanto administrativas como judiciales llamadas a intervenir una vez planteado el conflicto. En concreto, resulta más que preocupante la ligereza con que se acaba calificando a muchas becas como contratos laborales encubiertos o falsas becas. Precisamente, se llega a tales conclusiones con una carencia probatoria insospechada que merece, por lo menos, ser criticada.

Por todo ello, con este trabajo se pretende aseverar tales afirmaciones, al tiempo que aportar las pautas probatorias para que las soluciones se ajusten a la realidad. Para ello, se partirá del concepto de beca y, especialmente, de su finalidad, en contraste con las características propias del contrato de trabajo. Ciertamente, ese punto de partida será clave para analizar las actuaciones de la Inspección de Trabajo y de los tribunales de los órdenes contencioso-administrativo y social.

**Palabras clave:** becas, zonas grises del Derecho del Trabajo, contratos de trabajo encubiertos.

**Laburpena:** Beken eta lan-harremanen arteko bereizketa eztabaidatu izaten jarraitzen du Espainiako antolamendu juridikoan, indarreko legeriak ez baitu behar bezalako konponbiderik eskaintzen. Hori dela eta, lan-arloko doktrinak nahiz jurisprudentziak gune ilunetara bildu dituzte beka.

Zoritxarrez, behin gatazka sortuta, bi erakunde juridiko horiek bereizteko zailtasunari gehitu behar zaio Administrazio-agintaritzen eta auzitegien jarduna; izan ere, kasu askotan, jardun horrek ez du bat egiten errealitatearekin. Bada, erraztasun gehiegirekin kalifikatzen dira beka ezkutuko lan-kontratu edo beka faltsu gisa. Hain zuzen, guztiz kritikagarria da froga-gabezia nabarmenarekin heltzea ondorio horretara.

Halatan, ideiotan sakontzea da lan honen helburua; bide batez, frogabide egokiak proposatuko dira, konponbideak errealitatearekin bat etor daitezten. Horretarako, bekaren kontzeptuari erreparatuko zaio lehenengo, eta, bereziki, beka ororen xedeari, halakoak lan-kontratuaren ezaugarriekin kontrajartzeko. Abiapuntu hori funtsezkoa izango da, berebat, Laneko Ikuskatzailetzaren eta lan-arloko nahiz administrazioarekiko auzien auzitegien jarduerak aztertzeko.

**Gako-hitzak:** beka, lan-zuzenbideko gune ilunak, ezkutuko lan-kontratuak.

**Abstract:** The difference between grants and industrial relations is still a big problem because in Spanish legislation there is not a clear solution. Therefore, in the field of labour law, grants have been situated in grey areas by either doctrine or jurisprudence. Unfortunately, it is not only difficult to separate both concepts. In addition, when a conflict is raised, frequently, administrative authorities and courts do not make decisions according to the reality. Indeed, sometimes it is very worrying to observe how easily grants are rated as hidden employment contracts or false grants. In fact, those decisions are made without evidence, which has to be criticized.

Because of this, the aim of this study is to defend those statements, as well as, to set out guidelines in order to adjust the solutions to the reality. Consequently, first of all, the concept of the grant and, particularly, its goal, are going to be addressed, taking into account the different features regarding employment contracts. Certainly, that starting point is going to be essential to analyze the actions of the Labour and Social Security Inspectorate, as well as, the court's competence regarding appeals from decisions made by labour administrative authorities and the court's competence over issues regarding labour law.

**Key words:** Grants, grey areas of the labour law, hidden employment contracts.

1. BEKAREN KONTZEPTUA ETA BEKAK LAN-ZUZENBIDEKO GUNE ILUN GISA. 1.1. Prestakuntzaren eta mundu praktikoaren artean zubilanak egiten dituzten erakunde juridikoak. 1.2. Hezkuntza-lankidetzako programen bidez emandako bekak. 1.3. Ikasleak unibertsitatearekin elkarlanean aritzeko bekak. 1.4. Urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuarekin, prestatzen ari diren ikertzaileen estatutua onestekoarekin, bat etorritik emandako bekak. 1.5. Ekoizpen-esparruan emandako bekak. 1.6. Heziketa-kontratuak. 1.7. Probaldia. 2. KONTUAN HARTU BEHARREKO ZANTZUAK BEKA ALA LAN-KONTRATUA DAGOEN FROGATZEKO. 3. ANTZEMANDAKO FROGA-GABEZIA BATZUK ETA ZENBAIT JARRAIBIDE ERREALITATEAREN ARABERAKO KALIFIKAZIOA EGITEKO.

#### 1.-BEKAREN KONTZEPTUA ETA BEKAK LAN-ZUZENBIDEKO GUNE ILUN GISA

Sarri askotan, eztabaidak sortzen dira beken inguruan, halakoek lan-kontratuak ezkuta ditzaketela uste izateagatik. Eta horrek berarekin dakar beken kontzeptua aztertzeke premia.

Ildo horretatik, ikasketa-bekak eta beka akademikoak bazter utzi eta arreta jarri behar da lan egiteko edo zerbitzuak emateko xedea duten beketan. Horrela, lehenengoak identifika daitezke hiztegiek jaso ohi duten definizio orokor edo arruntarekin<sup>1</sup>; bigarren motakoetan, aldiz, bekadunek nolabaiteko jarduera gauzatu behar dute beti<sup>2</sup>. Azken buruan, aintzat hartu behar da, beken helburu nagusia bekadunen onura izan arren, erakunde beka-emaileek ere zeharka onurak izan ditzaketela<sup>3</sup>.

<sup>1</sup> Esate baterako, Euskal hiztegi modernoaren arabera beka da «ikasle, ikertzaile, etab.ek ikasketa edo ikerketa bat burutzeko jasotzen duten diru-laguntza» (Euskal hiztegi moderno. Donostia: Elhuyar Edizioak eta Elkarlanean, 2003, 3. argitalpena).

<sup>2</sup> Nolabaiteko zerbitzu-emaitea dakarten harremanen kontzeptualizazioari dagokionez, ikusi AHUMADA VILLALBA, B. La beca de formación práctica con prestación de servicios. In *Relaciones Laborales*, 1. liburukia, 1999, 248-250 orr.

<sup>3</sup> Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 1994ko urtarrilaren 28ko epaia (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social, 1994\1980. Orobat, Gaztela eta Leongo Auzitegi Nagusiaren 1992ko urriaren 20ko epaia, Aranzadi Social 1992\5215.

Zinez, argi dago beka-ikasketak lan-izaerarik gabekoak direna, horien bidez ez baita ezer ekoizten. Aitzitik, egunerokotasunak erakusten du lan egiteko bekek ondo merezitako lekua dutela lan-zuzenbidearen gune ilunetan, batik bat, hurrengo hiru inguruabarrengatik<sup>4</sup>:

a) Lan-kontratuak nahiz lan egiteko bekak osagai erkidea dute, alegia, ekoizpena<sup>5</sup>.

b) Bi-bien arteko nahasketa eragozteko arauketa egokirik ez dago<sup>6</sup>.

<sup>4</sup> SEMPERE NAVARRO, A.V. eta LUJÁN ALCARAZ, J. Becas y contrato de trabajo. In *Westlaw.es BIB 1996\1403 (Aranzadi Social, 1. liburukia, 1996)*, 1-2 orr. Jurisprudenzia «bi erakundeen arteko muga-eremuaz» mintzo da. Horren adibide da Auzitegi Gorenaren 1988ko ekainaren 13ko epaia (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 5270. «Gune ilun» eta «muga-eremua» kontzeptuak uztartu nahian, MOLINA MARTÍNEK adierazi du «beka-onuradunen lanbide-egoera lan-zuzenbidearen ohiko “gune iluna edo muga-eremua” dela» (MOLINA MARTÍN, A.M. Comentario al Real Decreto 1326/2003, de 24 de octubre, por el que se aplica el Estatuto del becario de investigación. In *Revista General de Derecho del Trabajo y Seguridad Social*, 5. zk., 2004, 2. or.

<sup>5</sup> Beharbada, SELVA PENALVA izan da inguruabar hori hobeto, modurik esanguratsuenan, agertu duena. Egin-eginean ere, aditu horren arabera, «bekaren xede nagusi eta oinarri-zoena bekaduna prestatzea da, nahiz eta hori ez izan beraren xede bakarra. Hurrean ere, modu osagarrian eta salbuespenez, beka-deialdiko baldintzen ondorioz, bekadunak bigarren mailako zenbait ekoizpen-lan ere egin beharko ditu, eta horrek ez dio kalterik egingo prestakuntza-xedeari, horrek harremanen osagai nagusi izateari eutsiko baitio» (SELMA PENALVA, A. *Los límites del contrato de trabajo en la jurisprudencia española*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2007, 364. or.). Halaber, badira inguruabar horren arriskuak nabarmendu dituzten adituak; izan ere, «bekadun batzuek ekoizpen-jarduera gauzaten dutenean, erakunde beka-emailearen antolaketa-jarraitzearen mende, bekadunaren egoera asko gerturazten da inorentzako lan egiten duen langilearen egoerara; kontuan hartu behar da bekadunaren jarduera erakunde beka-emailearen onurarako ere badela, eta, ondorenez, erakunde horrek trukean ordainsari batzuek ematen dituela» (MOLINA MARTÍN, A.M., *op. cit.*, 2-3 orr.).

<sup>6</sup> Inguruabar horri dagokionez, VILLALBA SALVADORrek nabarmendu du «ez dagoela lanbide-praktiketarako bekek oso-osoan, izaera orokorrek, jaso dituen arauketa berezirik» (VILLALBA SALVADOR, B. Aspectos jurídicos de los programas o becas de prácticas profesionales. In *Actualidad Laboral*, 1. liburukia, 1998, 196. or.). Era berean, AHUMADA VILLALBA harantzago doa, esaten duenean azken urteotan zerbitzuak emateko beka-mota asko sortu dela ekoizpen-esparru desberdinetan, baina gai horren inguruan ez dela inolako ahaleginik egin arauketa orokorra erdiesteko, eta, horren ondorioz, barreiatutako

c) Lan-zuzenbidearen aplikazioa saihesteko asmoarekin beka faltsuak baliatzen direnean, lege-maula gauzatzen da, benetako lan-kontratuak ezkutatuz<sup>7</sup>.

Era berean, azken aldian, prestakuntza-esparruaren eta esparru praktikokoaren arteko hurbilketa gertatuenez, zailago da bekaren eta lan-kontratuaren arteko mugak bereiztea. Gainera, hurbilketa hori gertatu da dimentsio edo errealitate desberdinak gainjarrita, hala nola, dimentsio akademikoa, laneratzeko dimentsioa eta ekoizpen-dimentsioa. Bada, askotarikoak dira halakoek oinarri dituzten arrazoiak: ikerketa, garapena eta berrikuntza; lanbide-prestakuntzako azpisistema eta enplegurako politikak; laneko segurtasuna; ondasunen eta zerbitzuen kalitatea; enpresen eragingarritasuna eta lehiakortasuna.

---

araubide gehiegi dagoela (AHUMADA VILLALBA, B., *op. cit.*, 250-251 orr.). Jurisprudentziak ere sarritan heldu dio ildo berari. Horren adibide da Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2005eko irailaren 12ko epaia (4. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2005\1180.

<sup>7</sup> GOÑI SEIN adituak dio «iruzurra dagoela beka baliatzean, baldin eta erakunde juridiko horren xedeen ordean lan-kontratuarenak lortu nahi direnean; bestela esanda, iruzurra dago, bekadunari laguntza ekonomikoarekin batera prestakuntza- eta lanbide-laguntza eskaini beharrean, lan-izaerako kontraprestazioa galdatzen zaionean, edo bekadunaren jakitateak beka-emailearen onurarako baliatzen direnean, beka estalki gisa erabiliz, lan-arloko eta Gizarte Segurantzako arauen aplikazioa saihesteko» (GOÑI SEIN, J.L. La inserción profesional de los jóvenes en la empresa a través de las becas. In *Relaciones Laborales*, 2. liburukia, 1986, 420-421 orr.). Garai horretako epaietan, esaterako, Lanaren Auzitegi Zentralaren 1984ko martxoaren 23ko epaian (Aranzadi, TCT, 2723), argiro adierazi zen «bekaren itxurapean benetako lan-kontratu desitxuratzea antolamendu juridikoak debekatutako emaitza edo antolamendu juridikoaren aurkako emaitza lortu nahi izatea dela, eta hori Kode Zibilarren 6.4 artikularen arabera lege-maulatzat jo behar dela, kalterik egin gabe saihestu nahi izan den arauaren behar bezalako aplikazioari...» (2. Kontuan Hartzekoa). Jurisprudentzia berrienari erreparatuz gero ere, ugari dira halako iruzurraz ohartarazi duten epaiak. Horren adibide dira Auzitegi Gorenaren 2005eko azaroaren 22ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 10049; Auzitegi Gorenaren 2006ko apirilaren 4ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (3. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 2325; Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2006ko apirilaren 11ko epaia (4 eta 5. Zuzenbideko Oinarriak), Aranzadi Social 2006\2063.

Horrenbestez, aldez aurretik egindako negozio juridikoaren benetako izaeraren inguruan gatazka sortzen denean, lan-kontratu ala beka dagoela frogatu ahal izateko funtsezkoa da gaur egun prestakuntzaren eta mundu praktikoaren artean zubi-lanak egiten dituzten erakunde juridikoak ezagutzera, bai eta horien ezaugarri nagusiak bereiztea ere.

### *1.1. Prestakuntzaren eta mundu praktikoaren artean zubi-lanak egiten dituzten erakunde juridikoak*

Unibertsitateetan hiru beka-mota aitortu ohi dira, hots, hezkuntza-lankidetzako programen bidez ematen direnak, ikasleak unibertsitatearekin elkarlanean aritzeko bekak eta urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuarekin, prestatzen ari diren ikertzaileen estatutua onestekoarekin, bat etorri ematen direnak<sup>8</sup>.

Orobat, posible da gradudun pertsonekin beka-harremanak eratzea ekoizpen-esparruan, hau da, enpresa pribatuetan, Administrazio publikoetan, bai eta irabazteko asmorik gabeko zenbait erakundetan ere. Bestalde, halako beken esparruari estu lotuta, baina lan-arloko antolamendu juridikoan, heziketarako lan-kontratuak daude<sup>9</sup>, eta probaldiak izan dezakeen egitekoa ere aintzat hartu behar da.

### *1.2. Hezkuntza-lankidetzako programen bidez emandako bekak*

Halako bekak arautu dituzte ekainaren 19ko 1497/1981 Errege Dekretuak<sup>10</sup>, eta irailaren 9ko 1845/1994 Errege Dekretuak<sup>11</sup>. Arau horietarik

<sup>8</sup> 2006ko otsailaren 3ko EAO, 29. zk.

<sup>9</sup> SALA FRANCO, heziketa-kontratuen bilakaeraz aritzean, argiro adierazi du, «hezkuntza-politikak mundu praktikoari begira dituen gabeziak gainditzeko beharrianaren ondorioz, 1980ko Langileen Estatutuaz geroztik, izen desberdinekin bada ere, Espainiako lan-arloko antolamendu juridikoan bi kontratu-mota arautu direla: ikastaldi-kontratu, prestakuntzako edo prestakuntzarako, eta praktikaldiko lan-kontratu [SALA FRANCO, T. Los contratos formativos (En torno al artículo 11). In *Revista Española de Derecho del Trabajo*, 1. liburukia, 2000, 100 zk. 397. or.]».

<sup>10</sup> 1981eko uztailaren 23ko EAO, 175 zk.

<sup>11</sup> 1994ko urriaren 18ko EAO, 249. zk.

lehenengoaren zioen azalpenean ezarri da hezkuntza-lankidetzako programak xedetzat dutela «unibertsitateko ikasleen oso-osoko prestakuntza lortzea, unibertsitatean eta enpresan gauzatu beharreko hezkuntza-programa paraleloaren bidez teoria eta praktika uztartuz». Horren haritik ezarri da «ikasleei aukera eman nahi zaiela, dela jakitate teorikoak eduki praktikoko jakitateekin txandakatzeko, dela, kasuan kasuko programa amaitzean, lanbide-munduan gutxieneko esperientziarekin sartzeko<sup>12</sup>.

Programa horiek gauzatzeko, unibertsitateek hitzarmenak egin behar dituzte enprekin; hitzarmenaren bidez ituntzen da enpresak parte hartuko duela prestakuntzarako behar diren heziketa espezializatu eta praktikoa (ikus 1497/1981 Errege Dekretuaren 1. artikulua). Hori gora-behera, programak baliagarriak izan daitezen aipatu bi errege-dekretuetako betekizunak gauzatu behar dira. Halakorik gauzatu ezean, legegilearen asmoen kontra joan daiteke, eta horrek ondoreak sortuko ditu, baldin eta lan-kontratuaren ezaugarriak frogatzen badira; orduan, bada, lan-kontratua ezkutatu dela adieraziko da<sup>13</sup>.

Galdututako betekizunen artean, lehenengo eta behin, kontuan hartu behar da programak gauza daitezkeela kasuan kasuko ikasketetako unibertsitate-titulua eskuratu ahal izateko kredituen 100eko 50 gaintitu dituzten ikasleekin bakarrik (ikus 1497/1981 Errege Dekretuaren 2. artikulua). Bigarrenik, programek ziurtatu behar dute ikasleek ikasketei eta enpresako jardueri begira duten dedikazio edo arduraldiak ez duela gaintitzen ikasturtearen iraupen osoaren 100eko 50 (ikus 1497/1981 Errege Dekretuaren 3. artikulua).

<sup>12</sup> Hain justu ere, sarritan, bekek halako asmorik ez dutela egiaztatzen denean, itxurazko beka baten atzean benetako lan-kontratua dagoela adierazten da.

<sup>13</sup> Hori berori aitortu du Andaluzia/Granadako Auzitegi Nagusiaren 2007ko urtarrilaren 24ko epaiak (Aranzadi Social 2007\3314), adierazi baitu harreman batzuek «lege-maula ezkuta dezaketela» (2. Zuzenbideko Oinarria).

Ikasleak enpresan izan beharreko prestakuntza-jarduerari dagokionez, araubidea programan bertan itundutakoa izango da. Beraz, aldez aurretik, unibertsitatearen eta enpresaren arteko koordinazioa behar da, programa egoki dadin ikaslearen hezkuntza- eta prestakuntza-ezaugarrietara. Baina ikasleak enpresako jarduera gauzatzeari ekiten dionean, itundutakoa betetzen dela gainbegiratu beharko da. Horretarako, tutore bat izendatuko da, aldi berean, unibertsitatearekin koordinatuko dena. Tutorea bermea da ikaslearen prestakuntzarako, hala denean, berak saihestu beharko duelako lankidetzaren programarekin lortu nahi den helburutik urruntzea (ikus 1497/1981 Errege Dekretuaren 5. artikulua).

### *1.3. Ikasleak unibertsitatearekin elkarlanean aritzeko bekak*

Beka-mota horiek oso hedatuta daude Espainiako unibertsitateetako zentro edo sail gehientsuenetan. Beraien helburua da ikasleek prestakuntza osagarria lortzea, erabiltzaile gisa eskuragarri dituzten unibertsitate-zerbitzuetakoren batean jardunez<sup>14</sup>. Horregatik, printzipioz, halako bekak eskuratu ahal izateko oinarritzko betekizunak dira titulu ofizialak lortzeko ikasketetan matrikulatuta izatea eta arlo edo espezializazio bakoitzean ezarritako baldintzak betetzea. Benaz, halako beken inguruan ez dagoenez inolako arauketa orokorrik, beken benetako xedea prestakuntza dela ziurtatzeko kontuan hartu behar dira deialdi bakoitzaren baldintza bereziak. Bestela esanda, egiatzatu beharko da ez dagoela benetako lan-harremanak ezkutatzeko iruzurrik<sup>15</sup>.

<sup>14</sup> Berbarako, biblioteca- eta agiritegi-zerbitzua, informazio- eta komunikazio-zerbitzua, kirol-zerbitzua, kudeaketa akademikorako zerbitzua, ikus-entzunezkoen gelak, ikasleen orientabiderako saila, pastoralerako saila, hizkuntza- eta terminologia-zerbitzuak, irudiak erreproduzitzeko zerbitzua, argitalpen-saila, kultura- eta aisialdi-jardueretarako saila...

<sup>15</sup> Ikusi RED2RED CONSULTORES. *Estudio sobre el sistema de becas en la primera inserción y su relación con el empleo*. Madril: Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa, 2006ko maiatza, 60. or.



Kasuistika ugari izan arren, doktrinak eta jurisprudentziak ezarri dute beka-modalitate hori modu egokian gauzatzeko esparrua<sup>16</sup>.

Hortaz, helburua denez ikasleak prestakuntza osagarriko aukera izatea, argi dago zuzeneko lotura izan behar dela bekaren bidez gauzatu beharreko jardueren eta aribideko ikasketen artean. Hain zuzen ere, halako beken xedeetatik ez aldentzeko, hezkuntza-lankidetzako programen ondoriozko bekekin gertatu antzera, bekadunak bere jarduerari ekin aurretik prestakuntza-plana ezarri behar da, plan horrek gutxieneko edukia izan beharko duela, benetako beka baten izaera bermatze aldera<sup>17</sup>.

Modu horretara, elkarlanean aritzeko beken helburuarekin batera, hots, ikasleen ikasketei begira prestakuntza osagarria eskaintzeaz gain, plan horretan zehaztu behar dira gauzatu beharreko jarduerak; arean ere, jarduerok egokitu behar zaizkie ikasleei, eta ez alderantziz. Era berean, ikasleek prestakuntza osagarria ahalik eta gehien aprobeitza dezaten, berebiziko garrantzia du tutorearen izendapenak, tutore horrek gauzatuko duelako ikaslearen etengabeko jarraipena eta kontrola. Tutoreak jarraibideak eman eta zuzenketak egin beharko dizkie ikasleei, jarduerak, eta, ondorenez, aurreikusitako prestakuntza, behar bezala gauza daitezen<sup>18</sup>.

---

<sup>16</sup> Beka-modalitate horri buruzko azterketa sakonagoa egiteko ikusi MORENO GENÉ, J.; PARDELL VEÀ, A.; eta ROMERO BURILLO, A.M. Las becas de colaboración de los estudiantes universitarios: un conflicto laboral anunciado. In *www.precarios.org/tiki-list\_file\_gallery.php?galleryId=25*.

<sup>17</sup> Ikusi Kataluniako Auzitegi Nagusiaren 2000ko urriaren 3ko epaia (Aranzadi Social 2001\888).

<sup>18</sup> Ikusi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2005eko maiatzaren 24ko epaia (Aranzadi Social 2005\1914).

*1.4. Urtarrilaren 27ko 63/2006 Errege Dekretuarekin, prestatzen ari diren ikertzaileen estatutua onestekoarekin, bat etorritz emandako bekak*

Duda-mudarik gabe, halako bekak dira eztabaida gutxien sortzen dutenak, iruzurra egiteko aukerari dagokionez<sup>19</sup>. Egin-eginean ere, soil-soilik aplikatzen zaizkie prestatzen ari diren ikertzaileei. Zehatz-mehatz, hiru dira ikertzaile horiek gauzatu beharreko betekizunak (ikusi 63/2006 Errege Dekretuaren 4.1 artikulua): unibertsitate-graduduna izatea; prestakuntza nahiz espezializazio zientifiko eta teknikorako jarduerak gauzatzeari begira laguntza-programen onuradun izatea; eta laguntza horien onuradun izatea kasuan kasuko doktorego-programa ofizialaren bidez.

Halaber, bekaren iraupena eta edukia ondo zehaztuta dago, halako kasuetan «2 + 2 sistema» aplikatzen baita, hau da, onuraduna bi urte arituko da bekarekin, eta beste bi praktikaldiko lan-kontratuarekin (ikusi 63/2006 Errege Dekretuaren 4.1 artikulua). Iraupenaren aldetik, sekula ere ezin izango dira gainditu lehenengo bi urteak, laguntza eman zenetik zenbatzen hasita. Eta edukiari dagokionez, bekaren helburua da behar adinako prestakuntza eskuratzea, doktorego-ikasketetan onartua izateko. Horrek esan nahi du kreditu-kopuru jakin bat ikasi beharko dela, hala-koak izan daitezkeela gradu edo master batekoak (ikusi 63/2006 Errege Dekretuaren Zioen Azalpena eta urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuaren, doktoregoko irakaskuntza ofizialak arautzekoaren<sup>20</sup>, 6. artikulua eta 2. xedapen gehigarria).

<sup>19</sup> Beka horien gaineko azterketa zehatzagorako ikusi CRISTOBAL RONCERO, R. *El Estatuto jurídico del Personal Investigador en Formación*. Madril: Civitas, 2008; MORENO GENÉ, J. *El personal investigador en formación. Régimen jurídico-laboral y de Seguridad Social*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2008.

<sup>20</sup> 2011ko otsailaren 10eko EAO, 35. zk.

### *1.5. Ekoizpen-esparruan emandako bekek*

Halako bekek oinarri dituzte enpresa pribatuek, antolaketa-autonomiaren arabera, eta Administrazio publikoek nahiz irabazteko asmorik gabeko erakunde batzuek egin ohi dituzten deialdi eta hautaketa-prozesuak, eskuzabaltasun osoz prestakuntza praktikoa eskaintzeko asmoarekin.

Praktikan arazoak sor daitezke, bekaren objektu gisa eskainitako prestakuntzak edo ikastaldiak berarekin dakarrelako beti alokairuko langile baten antzeko jarduera gauzatzea; izan ere, gaitz da zerbait ikastea, baldin eta edozein lanbidetako zereginak gauzaten ez badira.

Ondorenez, sarritan, halako beka-egoerak eta lan-kontratuak bereiztea katramilatsua izaten da<sup>21</sup>. Halatan, egoera horiek «enplegu periferiko»<sup>22</sup> moduan kalifikatu izan dira, enpleguaren, prestakuntzaren eta lan-eratzearen erdibidean izateagatik.

Haatik, doktrinarekin eta jurisprudentziarekin bat etorritz, faltan botatzen da bekadunari buruzko arauketa, batik bat, gradu ostekoa<sup>23</sup>. Duda-izpirik gabe, horrek arazoa erabat konponduko luke. Nolanahi ere, hori ez da oztopoa halako beken zilegitasuna aitortzeko, betiere, beraien jardute-esparrua gainditzen ez badute, alegia, helburu nagusitzat duten prestakuntza.

<sup>21</sup> Esangura horretan, MORÓN PRIETOK egoera horiek kalifikatu ditu «lan-harremanekiko muga-eremu gisa, non ekoizpen-jarduera izan arren, jarduera horrek ezaugarri propioak eta zeharo difuminatuak dituen, bestelako interes batzuk ere badituelako, hala nola, prestakuntza, espezializazioa edo laneratzea» (MORÓN PRIETO, R. El Estatuto del Personal Investigador en Formación: otro tímido paso en la asimilación de las becas formativas al Régimen laboral. In *Relaciones Laborales*, 2. liburukia, 2006, 449. or.).

<sup>22</sup> GONZÁLEZ ORTEGA, S. Las becas: ¿formación, inserción, prácticas profesionales, trabajo asalariado? In VVAA. *Trabajo subordinado y trabajo autónomo en la delimitación de fronteras del Derecho del Trabajo. Estudios en homenaje al profesor José Cabeza Bazán* (CRUZVILLALÓN, J., zuz.). Madril: Tecnos, 1999, 134. or.

<sup>23</sup> Ideia horretan gehiago sakondu nahi izanez gero, ikusi VVAA. *Tratado Práctico de Derecho del Trabajo. El ordenamiento laboral, trabajadores, empresarios y empresas. Derecho colectivo del trabajo, acceso al empleo y proceso de colocación*, 1. liburukia (MARTÍN VALVERDE, A. eta

Laburbilduz, ekoizpen-dimentsioa, esangura zabalean ulertuta (lan egitea edo zerbitzuak ematea), goi egitura litzateke, eta bere baitara bilduko lirateke bekak eta lan-kontratuak. Horregatik, bi-biak bereizteko, aurrena, bekekin muga egiten duten lan-kontratuak hartu beharko lirateke kontuan. Hurrena, bekaren zantzuak aztertu beharko lirateke, batez ere, bekarekin benetako lan-kontratu ezkutatu nahi denean.

### *1.6. Heziketa-kontratuak*

Bekei begira gatazka eragin dezaketen lan-kontratu bakarrak heziketa-kontratuak dira, eta, horien artean, bereziki, praktikaldiko kontratuak hartu behar da kotuan. Hurrean ere, kontratu-modalitate hori beren-beregi erabiltzen da, dela unibertsitate-titulua edo erdi-mailako nahiz goi mailako lanbide-heziketako titulua dutenekin, dela modu ofizialean baliokidetzat aitortutako tituluak dituztenekin, dela profesionaltasun-ziurtagiria dutenekin, lanbide-jarduera gauzatzea ahalbidetzeko, kasuan kasuko ikasketak amaitu eta hurrengo bost urteetan, edo hurrengo zazpi urteetan, kontratu desgaitasuna duen langile batekin egiten denean<sup>24</sup>.

---

GARCÍA MURCIA, J., zuz. eta koord.). Cizur Menor (Nafarroa): Aranzadi, 2008, 813. or. Jurisprudenziari helduz, ikusi, konparazio baterako, Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2003ko ekainaren 5eko epaia (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2003\3525. Azken finean, arauketarik ezak ahalbidetzen du bekak gauzatzeko baldintzak zeharo malgutzea, halakoak desitxuratzeko arriskuarekin. Arau-hutsuneari aurre egiteko proposatu izan da bekadunaren egoera sektoreko edota enpresetako hitzarmen kolektiboetan arautzea (RED2RED CONSULTORES. *Estudio sobre el sistema de becas en la primera inserción y su relación con el empleo*. Madril: Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa, 2006ko maiatza, 147-148 orr.).

<sup>24</sup> Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onestekoa (LELTB) (1995eko martxoaren 29ko EAO, 75. zk.), 11.1 artikulua. Gazteen estreinako laneratzea bideratzeko lanabes gisa, beken eta praktikaldiko lan-kontratuaren artean sortu ohi diren gatazka-esparruei dagokienez ikusi RED2RED CONSULTORES. *Estudio sobre el sistema de becas en la primera inserción y su relación con el empleo*. Madril: Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioa, 2006ko maiatza, 135-137 eta 152-158 orr.

Beraz, beken zilegitasuna baieztatzeko, beka lan-kontratu horiekin alderatu behar dira, bi erakunde horiek bat egin dezaketen esparru guztietan: zuzenbide pribatuko nahiz zuzenbide publikoko erakundeetan, kontuan hartu gabe halakoek irabazteko asmoa duten ala ez<sup>25</sup>.

Bada, praktikaldiko lan-kontratua erreferentziatzen hartu behar da, beka bidez araututako prestakuntza-harremanetan<sup>26</sup>. Alabaina, praktikaldiko lan-kontratuaren eta bekaren arteko desberdintasuna kontratu horren objektuan eta karian datza.

Printzipioz, praktikaldiko kontratuaren objektua, gainerako lan-kontratu modalitateetan bezala, trukaketa da: langileak bere lan-zerbitzuak ematen dizkio enpresaburuari, eta enpresaburuak itundutako ordainsariak langileari. Baina praktikaldiko kontratuaren berezitasuna da enpresaburuaren betebeharrak bigarren prestazio bat ere biltzen dela. Horrela, enpresaburuak prestakuntza eskaini behar dio langileari, horrek kontratua egin

<sup>25</sup> Irabazteko asmorik gabeko erakundeek emandako bekei dagokienez ikusi Kanarietako (Las Palmaseko) Auzitegi Nagusiaren 2004ko martxoaren 18ko epaia (Aranzadi Social 2004\1168) eta Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2000ko urriaren 26ko epaia (Aranzadi Social 2000\4322). Epaia horiek ondorio desberdinak dituzte, lehenengoan, prestakuntza delako interes nagusia, ekoizpenaren gainetik, eta, bigarrean, guztiz aurkakoa gertatzen delako.

Zenbait kolektibo gizartratzea eta laneratzea suspertzeko enplegu-programak antolatzen dituzten fundazioen edo erakundeen bekei dagokienez, ikusi RODRÍGUEZ CARDO, I.A. Criterios de deslinde entre beca y relación laboral: a propósito de la última doctrina judicial. In *Actualidad Laboral*, 2. liburukia, 2006, 2307-2309 orr.

Azkenik, irabazteko asmorik gabeko erakundeen inguruan, aintzat hartu behar da erakunde batek jarduerak jakin bat gauzatzeko duen asmoa edo jarduerak horrekin lortu nahi duen helburua ez dela nahikoa harreman juridikoak kalifikatzeko. Hori berori ondoriozta daiteke kirolari amateurren kasuan; izan ere, askotan, irabazteko asmorik gabeko klub edo erakundeentzako zerbitzuak ematen dituzten kirolariak, jakin gabe, «amateurismo marroi» deritzonaren biktima dira. Horrenbestez, argi utzi behar da «ordainsaririk eza lan-izaerarik gabeko harremanen aldeko zantzu garrantzitsua izan arren, hori ez dela nahikoa alokairuak oso-osoan edo zati batean jaso gabe dagoen pertsona bat alokairukotzat ez jotzeko» [LUJÁN ALCARAZ, J. Las fronteras del deporte profesional. In *Westlaw.es BIB 2008\769 (Aranzadi Social, 3. zk., Tribuna, 2008)*, 5. or.].

<sup>26</sup> Esangura horretan, ikusi AHUMADA VILLALBA, B., *op. cit.*, 263-266 orr.

aurretik eskuratutako jakitate teknikoak lehendabiziko aldiz aplikatu eta hobetzeko xedearekin. Gainera, inguruabar horrek ondorioak izango ditu alokairu-prestazioan ere: alokairuak gutxituko dira, langilearen esfortzua eta ekoizpenaren emaitzak txikiagoak direlako<sup>27</sup>.

Aitzitik, bekaren objektua bekadunaren prestakuntza edo ikastaldia baino ez da; areago, bekadunari eman ahal zaizkion zenbateko ekonomikoak ez dute alokairu izaerarik, ez baitago betebeharrak sinalagmatikorik. Nabarmendu behar da lan egiteko bekak beka-emailearen eskuzabaltasunaren ondorio direla, beka-emailearen asmoa baita laguntza eskaintzea lanbide-prestakuntza osatzen diharduenari<sup>28</sup>.

Amaitzeko, praktikaldiko lan-kontratuaren karia lotzen zaio ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko gizarte-eginkizunari. Hortaz, kontratu hori ez da aldentzen osterantzeko lan-kontratuen karitik, nahiz eta ekoizpena txikiagoa izan, objektuaren inguruan aipatu berezitasunarengatik.

<sup>27</sup> Ikusi LEITBren 11.1.e) artikulua. Horren inguruan, aintzat hartu LÓPEZ GANDÍA, J. Becarios. In *Contrato de trabajo y figuras afines*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 1999, 17. or. Bestalde, DURÁN LÓPEZ prestakuntza-prestazio horretaz mintzo da, ulertzen duelako praktikaldiko kontratuaren objektua dela «langileari aukera ematea, beraren jakitate teorikoak hobe ditzan; izan ere, jakitate horiek ekoizpen-prozesuan modu praktikoan aplikatzen diren heinean, prestakuntza osatu eta lanbide-kualifikazioa eta -gaitasuna gehitzen dira» (DURÁN LÓPEZ, F. Notas sobre el régimen jurídico de los contratos de trabajo en prácticas y para la formación. In *Revista Española de Derecho del Trabajo*, 1982, 12. zk., 524. or.). Orobat, praktikaldiko lan-kontratuaren objektu bikoitzaren inguruan kontuan hartu SALA FRANCO, T., *op. cit.*, 410. or.

<sup>28</sup> Ugari da lan egiteko beken izaera horri buruzko jurisprudentzia. Horren adibide dira Auzitegi Gorenaren 1988ko ekainaren 13ko epaia (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 5270; Auzitegi Gorenaren 2005eko azaroaren 22ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 10049; Auzitegi Gorenaren 2006ko apirilaren 4ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi, 2325; Auzitegi Gorenaren 2007ko martxoaren 29ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (2. Zuzenbideko Oinarria), Ar. 3191; Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2003ko maiatzaren 19ko epaia (4. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2003\3423; Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2008ko azaroaren 17ko epaia (1. Zuzenbideko Oinarria) JUR. 2009\91060.

### 1.7. Probaldia

Probaldia bi aldeko negozio juridikoa da, karitzat duena enpresaburuaren eta langilearen artean itundutako kontratu-baldintzak praktikan egiaztatzea. Probaldia ezartzen denean, kontratua baldintzapean geratzen da aldi baterako, denbora-tarte horretan kontratua azkendu daitekeela. Egin-eginean ere, kontratua probaldian dagoen bitartean «enpresaburuak eta langileak probaldiaren objektu diren esperientziak gauzatzeko betebeharra dute» (LELTBren 14.1 artikulua). Azkenean, bi alderdiek kontratuko baldintzak modu egokian «gauzaturtat» edo «frogaturtat» jotzen badiutuzte, «behin probaldia igarota... kontratuak erabateko ondoreak sortuko ditu; [eta] probaldiak iraun bitarteko zerbitzuak zenbatuko dira langilearen antzinakotasunerako enpresan» (LELTBren 14.3 artikulua). Hori geratzen ez bada, lan-harremanak suntsiaraziko dira; halaber, hori berori aurretiaz gertatu ahal izango da, alderdietako edonork hala eskatuta, probaldiak iraun bitartean (LELTBren 14.2 artikulua).

Hori guztiori dela eta, ezin da bekarik erabili probaldiaren ordez, langilearen trebetasun, gaitasun eta ezaugarri pertsonalak egiaztatu nahi direnean<sup>29</sup>. Praktikan, ordea, itxura denez, enpresa pribatu askok bekak erabiltzen dituzte helburu horrekin. Horren ondorioz, lan-zuzenbidetik ihes egin eta lege-maula gauzatzen da<sup>30</sup>.

<sup>29</sup> LÓPEZ GANDÍA, J. Trabajo en prácticas y para la formación. In VVAA. *Comentarios a las leyes laborales. El Estatuto de los Trabajadores* (BORRAJO DACRUZ, E., zuz.). Madril: Edersa, 1985, 3 liburukia, 8.etik 13.enera arteko artikulua, 145-146 orr.

<sup>30</sup> RODRÍGUEZ CARDO, I.A., *op. cit.*, 2310. or. Beken bidez probaldia ezkutatzearen inguruan ikusi, berebat, ALONSO OLEA, M. eta CASAS BAAMONDE, M.E. *Derecho del Trabajo*. Madril: Civitas, 1999, 17. argitaraldia, 542. or.

## 2.- KONTUAN HARTU BEHARREKO ZANTZUAK BEKA ALA LAN-KONTRATUA DAGOEN FROGATZEKO

Behin lan egiteko bekaren kontzeptua eta horren modalitate desberdinak aztertuta, ondoriozta daiteke beka eta lan-kontratua bereizi ahal izateko horien bidez gauzatzen den jardueraren xedea frogatu behar dela. Bestela esanda, harreman juridikoen alderdiei erreparatuz, onurarik handiena lortzen duen alderdia zehaztu behar da. Modu horretara, beka zilegi izan dadin, prestakuntza izan behar da harreman juridikoen xede nagusia, eta bekadunak izan behar du onurarik handiena. Aitzitik, jardueraren helburu nagusia ekoizpena bada, eta, ondorenez, onurarik handiena erakunde beka-emaileak lortzen badu, lan-kontratua izango da, nahiz eta jarduera horretara prestakuntza-izaerako osagaiak ere bildu, praktikaldiko lan-kontratuan gertatu antzera. Gainera, «onura nagusiaren irizpidea» jurisprudenziak ez ezik, doktrinak ere sarri erabiltzen du, beken eta lan-kontratuen arteko mugak ezartzean<sup>31</sup>.

<sup>31</sup> Jurisprudenziari dagokionez, hurrengo epaiak kontsulta daitezke: Auzitegi Gorenaren 1989ko apirilaren 13ko epaia (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 2967; Auzitegi Gorenaren 1995eko ekainaren 26ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi, 5365; Auzitegi Gorenaren 2006ko apirilaren 4ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi, 2325; Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiaren 1999ko urriaren 19ko epaia (4. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 1999\3724; Valentziako Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2000ko otsailaren 3ko epaia (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social, 2000\2302.

Doktrinan, kontuan har daitezke, besteak beste, hurrengo lanak: GOÑI SEIN, J.L. Las becas y el encubrimiento de contratos laborales (A propósito de la sentencia del Tribunal Central de Trabajo de 14 de octubre de 1982). In *Revista Española de Derecho del Trabajo*, 1983, 14. zk., 297. or.; LÓPEZ GANDÍA, J. Becarios. In VVAA. *Contrato de trabajo y figuras afines*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 1999, 16. or.; ALONSO OLEA, M. eta CASAS BAAMONDE, M.E., *op. cit.*, 542-543 orr.; MORENO GENÉ, J. El personal investigador en formación: ¿Becarios o trabajadores? In [www.precarios.org/Documentos+de+referencia](http://www.precarios.org/Documentos+de+referencia), 2005, 11-12 orr.; GARCÍA VALVERDE, M.D. Naturaleza de la relación que une al “supuesto becario” con la Universidad. In *Westlaw.es BIB 2005\2014 (Aranzadi Social, 2005)*, 3. or.; RODRÍGUEZ CARDO, I.A. Criterios de deslinde entre beca y relación laboral: a propósito de la última doctrina judicial. In *Actualidad Laboral*, 2006, 2. liburukia, 2292-2294 orr.; MORÓN



Alabaina, praktikan, irizpide hori orokorregia, zalantzarria eta anbigua da. Horregatik, zantzetan oinarritutako teknika da metodorik zurrerena, interes nagusia eta alderdi onuraduna zehazteko, eta, azken buruan, beka ala lan-kontratua dagoen argitzeke.

Zehatzago, benetako beka ote dagoen zehazteko orduan, presuntzio judizialek berebiziko garrantzia dute. Bestela esanda, egitatezko presuntzioa izango da «onura nagusiaren irizpidea» (bekadunaren prestakuntza erakunde beka-emaileak lortutako ekoizpenaren gainetik), eta egitate hori badela defendatzeko, komenigarri izango da hurrengo zantzuak aintzat hartzea:

a) *Bekadunak gauzatu beharreko jardueraren bat etortzea beka emateko kontuan hartutako ikasketa edo titulazioarekin*: zantzu hori erabiltzen bada, egiaztatu behar da gauzatu beharreko eginkizunak bat datozeela erreferentziatutako hartutako ikasketa edo titulazioarekin; eginkizun horiek beren-beregi antolatu direla bekadunak prestatzeko helburuarekin; eta jardueraren ondorioz, beka eman aurretik hezkuntza-esparruan lortutako prestakuntza teoriko eta praktikoa aberasten dela, lanbide jakin bati begira<sup>32</sup>.

b) *Bekadunak gauzatutako jardueraren izaera, batez ere, prestakuntzari lotua izatea*: baliteke bekadunak gauzatutako jarduerarekin ekoizpena lortzea, baina ekoizpen hori prestakuntza-helburuaren mende izan behar da beti. Halaber, aurreko zantzuari lotuta, prestakuntza bat etorri behar da beka-

---

PRIETO, R., *op. cit.*, 448-449 orr.; SELMA PENALVA, A. Las becas como situaciones confusas. In *Los límites del contrato de trabajo en la jurisprudencia española*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2007, 363. or.; MORENO GENÉ, J. *El personal investigador en formación. Régimen jurídico-laboral y de Seguridad Social*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2008, 65-72 orr.; CRISTÓBAL RONCERO, R., *op. cit.*, 56-60 orr.

<sup>32</sup> Esangura horretan, GONZÁLEZ ORTEGA, S., *op. cit.*, 130. or. Orobat, irizpide horren garrantziaz ari dira: GOÑI SEIN, J.L., *op. cit.*, 299. or.; VILLALBA SALVADOR, B., *op. cit.*, 201-202 orr.; LÓPEZ GANDÍA, J., *op. cit.*, 16. or. Irizpide hori aintzat hartu duten epaien artean ikusi Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2003ko maiatzaren 19ko epaia (6. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2003\3423.

dunaren ikasketa edo titulazioarekin. Horrek berarekin dakar modu teleologikoan balioestea bekadunak dituen egiteko guztiak, kasuan kasuko erakunde beka-emailean jarduten hasi ondoren; izan ere, hori izango da bide bakarra jakiteko egiteko horiek bekadunari behar adinako onura sortzen badioten ala ez, bere ikasketen edo titulazioaren araberrako esperientzia lortzeari dagokionez<sup>33</sup>.

Bestalde, bekaren prestakuntza-izaera eta beka kasuan kasuko titularen araberrakoa izatea antzeman daitezke erakunde batek bekadunen premiarik ez izateagatik bere jardunbiderako eta bere xedeak lortzeko. Hori aisa antzeman ahal izango da, baldin eta bekadunaren egitekoak amaitu ostean ez bada sortzen hirugarren bat kontratatzeko beharrianik, hain zuzen, egiteko horiek gauzatzeko. Halako kasuetan, bekaduna erakundeak jasan beharreko kostu ekonomikoa izan ohi da<sup>34</sup>. Aitzitik, auzitegiek harreman juridikoak lan-izaerako gisa kalifikatzen dituzte, antzematen dutenean bekaduna zein erakundetan aritu eta erakunde horretan bekadunik izan ezean hirugarren bat kontratatu beharko litza-tekeela bekadunaren jarduerak gauzatzeko<sup>35</sup>.

<sup>33</sup> Jurisprudentzia aberatsa da oso, bekadunak gauzatutako zereginen prestakuntza-xederik ezaren aurrean lan-harremanak daudela ebazteko orduan. Horren adibide dira hurrengo epaiak: Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2005eko irailaren 19ko epaia (3. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2006\597; Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2008ko azaroaren 17ko epaia (1. Zuzenbideko Oinarria), JUR. 2009\91060; Asturiaseko Auzitegi Nagusiaren 2008ko abenduaren 5eko epaia (2. Zuzenbideko Oinarria), JUR. 2009\131912. Halaber, frogabide egokiarekin: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2008ko uztailaren 8ko epaia (Aranzadi Social 2008\2924).

<sup>34</sup> Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2006ko otsailaren 6ko epaia (4. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2006\2070.

<sup>35</sup> Asturiaseko Auzitegi Nagusiaren 2003ko uztailaren 18ko epaia (Zuzenbideko Oinarri bakarra), Aranzadi Social 2003\4049; Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiaren 2006ko epaia (Zuzenbideko Oinarri bakarra), Aranzadi Social 2006\2467; Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2007ko ekainaren 19ko epaia (Zuzenbideko Oinarri bakarra), Aranzadi Social 2007\2698. Doktrinan, interesgarria da MORENO GENÉK egindako balorazioa, adierazten duenean «bekadunaren jarduerak xedetzat izan behar duela horrek prestakuntza hobea izatea, eta ez beka-deialdia egin duen erakundearen edota bekadunaren jarduera baliatzen duen erakundearen beharrianak asetzeari; hori dela bide, nahiz

Azken ideia horren haritik, adierazi da lan-harremanak izango direla, bekadunaren jarduerak izaera egonkorra eta oinarritzkoa duenean lantokiko edo enpresako jardunbidean<sup>36</sup>. Hain justu ere, oinarritzotasun hori bekaren iraupenetik ondoriozta daiteke, oro har, «iraupen luzeak berez agertzen duelako prestakuntza-prozesua amaitutzat jo daitekeela, eta bekari eustearren arrazoa zuzen-zuzenean lotzen zaiola bestelako ekoizpen-helburuei»<sup>37</sup>.

c) *Mendetasun akademikoa izatea, lan-izaerako mendetasunaren ordeztasun*: bekadunek alokairuko langileen jarduera berberak gauza ditzakete, baita, eduki aldetik, halakoak baldintza berberetan gauzatu ere (berbarako, lantzenbora, lan egiteko lekua), helburu nagusia delako bekadunek prestakuntza praktikoa eskuratzea. Alabaina, halako jarduerak nahitaez gauzatu behar dira LELTBren 1. artikulua apatu enpresaburuaren antolaketa- eta zuzendaritza-esparrutik at».

Mendetasun akademikoa mugatu behar da orientabide-izaerako jarraibideak ematera eta gauzatutako jardueren jarraipena egitera, helburu bakartzat izanik bekadunaren prestakuntza ahalbidetzea. Hortaz, enpresaburuak bekadunari begira ezin ditu egikaritu zuzendaritza-ahalmenak, nolabaiteko ekoizpen-jarduera antolatzeko. Bada, ideia horietan oinarritzen da zenbait egoeratan bekadunekiko izaten den malgutasuna eta permitibitate<sup>38</sup>.

---

eta bekadunak benetako lanpostu bat izan, bere jarduera periferikoa izan behar da; bestela esanda, beka-araubidepean prestakuntza-aldia zein erakundetan gauzatu eta erakunde horrentzat bekadunaren jarduera ez da beharrezkoa izan behar» (MORENO GENÉ, J., *op. cit.*, 69-70 orr.).

<sup>36</sup> GOÑI SEIN, J.L., *op. cit.*, 299-300 orr.

<sup>37</sup> GONZÁLEZ ORTEGA, S., *op. cit.*, 130. or. Halaber, ideia horretan oinarritu dira, besteak beste, honako epai hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko 2003ko martxoaren 18ko epaia (1. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2003\2567; Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2005eko azaroaren 28ko epaia (6. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2005\3784.

<sup>38</sup> Ideia horien inguruan ikusi RODRÍGUEZ SAÑUDO, F., *op. cit.*, 300. or.; GOÑI SEIN, J.L., *op. cit.*, 298. or.; SELMA PENALVA, A. Los becarios aparentes. Comentario a la STSJ del País Vasco, de 18 de marzo de 2003 (Aranzadi Social, 2003\2567). In *Aranzadi Social*, 2003,

Dena den, mendetasun akademikoa balioesteko irizpiderik erabakigarrienen artean nabarmendu behar dira «azken kontrol edo azterketak»<sup>39</sup> egitea eta tutorea izatea. Tutoreak bekadun bakoitza balioetsi beharko du lortutako prestakuntza-emaizten arabera, eta sekula ez ekoizpenaren edo lan-zamaren arabera. Azken buruan, inguruabar hori erabakigarri da, ikasle bati beka berritzatzeko aukera balioesteko orduan, hezkuntza-lankidetzako edo elkarlanean aritzeko beken kasuan; izan ere, ikaslearen interes akademikoa gailendu behar da beti. Beste hitz batzuekin esanda, bekaren iraupena, edo ondoz ondoko beken iraupena, ikasleak lortu beharreko prestakuntza osagarriaren arabera da. Baina, arestian aipatu bezala, beken iraupena nabarmen luzatzen denean, ekoizpen-helburu garbiekin, jurisprudentziak harreman juridikoen lan-izaeraren alde egiten du<sup>40</sup>.

3. liburukia, 52. zk., 2816. or.; GARCÍA VALVERDE, M.D., *op. cit.*, 2 eta 5. orr.; CRISTÓBAL RONCERO, R., *op. cit.*, 61. or.; MORENO GENÉ, J., *op. cit.*, 71. or.

<sup>39</sup> Horren inguruan ikusi SELMA PENALVA, A. Las becas como situaciones confusas. In *Los límites del contrato de trabajo en la jurisprudencia española*. Valentzia: Tirant lo Blanch, 2007, 374. or.

<sup>40</sup> Adibide gisa ikusi, besteak beste, hurrengo epaiak: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2006ko apirilaren 11ko epaia (4. Zuzenbideko Oinarria, C zatia), Aranzadi Social 2006\2063; Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko azaroaren 8ko epaia (4. Zuzenbideko Oinarria, C zatia), Aranzadi Social, 2005\627. Jurisprudentziak gauza bera adierazi ohi du, bekaren objektua oinarritzen denean unibertsitateko prestakuntzari inolako ekarpenik egiten ez dioten zereginetan, gehienbat, halakoak errepikakorrek direnean. Hori berori dio, esaterako, Madrilgo Auzitegi Nagusiaren 2005eko irailaren 19ko epaiak (3. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social, 2006\597.

### 3.- ANTZEMANDAKO FROGA-GABEZIA BATZUK ETA ZENBAIT JARRAIBIDE ERREALITATEAREN ARABERAKO KALIFIKAZIOA EGITEKO

Proposatutako diren zantzuak frogatzea nahitaezkoa da adierazi ahal izateko beka ala ezkutuko lan-kontratua dagoen<sup>41</sup>.

Horretarako, lehendabizi, gogorarazi behar da antzua dela alderdiek negozio juridikoari eman diezaioketen «nomen iuris» delakoa, hau da, negozio juridikoaren inguruan egin dezaketen kalifikazioa. Ildo horretatik, beka-deialdiek kasuan kasuko harreman juridikoei eman ahal diezazkieketen izenek ez dute inolako garrantzirik. Beraz, kasuan kasuko harreman juridikoen atzean egitan dagoen edukia hartu behar da kontuan. Hori dela eta, benetako beka izan dadin, funtsezkoa da lan-zuzenbideko ezaugarriak ez izatea<sup>42</sup>.

<sup>41</sup> Bestalde, gogora bedi presuntzio judizialak erabiltzeko ezinbesteko betekizuna dela zantzuak edo oinarrizko egitateak oso-osoan frogatuta egotea (esangura horretan ikusi GABERÍ LLOBREGAT, J. *Los medios de prueba en la Ley de Enjuiciamiento Civil*. Bartzelona: Bosch, 2009, 147. or. eta h. Era berean, ikusi GONZÁLEZ DEL REY RODRÍGUEZ, I. eta MENÉNDEZ SEBASTIÁN, P. La prueba en el proceso laboral: objeto, carga y posibilidades de impugnación. In *Westlaw.es BIB 2006\982 (Aranzadi Social, 2006, azterlana, 10. zk.)*, 15. or. eta h.

<sup>42</sup> Jurisprudenzian sarri askotan adierazi da alderdiek kontratuari eratziki diezaioketen kalifikazioak ez duela batere garrantzirik; areago, nabarmendu da kontratu baten izaera juridikoa eratzten dutela itundutako eskubide eta betebeharrekin, baina baita egitan egitaritzen diren eskubide eta betebeharrekin ere. Zinez, organo judizialei baino ez dagokie erabakitzea *inter partes* harremanek lan-izaera duten ala ez, benetako edukia aintzat hartuz. Aspaldiko epaiak gogora ekarriz, hurrengoak nabarmendu behar dira: Auzitegi Gorenaren 1963ko azaroaren 22ko epaia (Aranzadi 5083); Auzitegi Gorenaren 1966ko maiatzaren 6ko epaia (Aranzadi 2246); Lanaren Auzitegi Zentralaren 1974ko maiatzaren 8ko epaia (Aranzadi 2196); Lanaren Auzitegi Zentralaren 1975eko irailaren 27ko epaia (Aranzadi 3979); Lanaren Auzitegi Zentralaren 1981eko urtarrilaren 26ko epaia (Aranzadi 387) eta Auzitegi Gorenaren 1983ko azaroaren 14ko epaia (Aranzadi 5595). Geroago emandako epaien artean, kontuan hartzeko moduak dira, hala nola, Auzitegi Gorenaren 1999ko abenduaren 29ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (2. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 2000\1427; Auzitegi Gorenaren 2006ko apirilaren 4ko epaia, doktrina bateratzeko emandakoa (3. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi 2325.

Hala eta guztiz ere, ohikoa da Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzak lantokiak bisitatzea eta arau-hausteen aktak jasotzea, bai eta Gizarte Segurantzako kuoten kasuan kasuko likidazio-aktak ere, interesdunekin elkarrizketa laburra izan eta gero, eta, askotan, kontuan hartu gabe hezkuntza-lankidetzako hitzarmenetan ezarritakoa zehatz-mehatz bete izana<sup>43</sup>. Halako kasuetan, Ikuskatzailetzak bere eskumenak gainditzen ditu, eta, lan-arloko epaile bailitzan, lan-harremanak daudela adierazten du, hori lan-arloko epaileek bakarrik egin dezaketenean, apirilaren 7ko 2/1995 Legegintzazko Errege Dekretuak (LPLTBk), lan-prozedurari buruzko testu bategina onestekoak, 2. artikuluan, ezarritakoaren arabera<sup>44</sup>.

Benaz, epai batzuek azpimarratu duten bezala, kalifikazio-ondoreetarako ez da erabakigarria bekadunek alokairuko langileen jarduera berberak gauzatzea eta langile horien ordutegi bera izatea, beken helburua delako, «hain zuzen, ikasleek, normalean, unibertsitate-ikasketek ahalbidetzen ez dieten prestakuntza praktikoa eskuratzea. Eta prestakuntza praktikoa soil-soilik eskura daiteke langileen zereginak gauzatuz. Bada, hortik ondorioztatzen da zereginok gauzatzeak ez duela berez eragingo bekadunaren izaera galtzea, betiere, zereginok bekadunaren onurarako badira», bere prestakuntza gehituz, kasuan kasuko hezkuntza-lankidetzako hitzarmenean jasotakoarekin bat etorri<sup>45</sup>.

<sup>43</sup> Jokabide hori zehaztasun gehiagorekin aztertzeko ikusi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2004ko uztailaren 20ko epaia (JUR. 2005\41801). Bada, kasu horretan, lehendabizi, lan-arloko auzialdiko epaitegiak errealitatearekin bat datozen egitateak aintzat hartu zituen, eta Ikuskatzailetzaren akten egiazkotasun-presuntzioa gaitzetsi zuen. Hala ere, gero, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak auzialdiko epaitegiaren epaiaren aurka jarritako eskezik errekurtsioa aintzat hartu, eta epai hura ezeztatu zuen. Horren ondorioz, Auzitegi Nagusiak inolako bekarik ez zegoela adierazi, eta lan-harremanen alde egin zuen. Orobat, ikusi Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2007ko apirilaren 24ko epaia (3. Zuzenbideko Oinarria), Aranzadi Social 2007\2484.

<sup>44</sup> 1995eko apirilaren 11ko EAO, 86. zk. Eskumen horri buruz ikusi NORES TORRES, L.E. Los órganos del orden social de la jurisdicción y sus competencias. In VVAA. *El proceso laboral* (BLASCO PELLICER, A., zuz.). Valentzia: Tirant lo Blanch, 2005, 1. liburukia, 51. or.

<sup>45</sup> Esangura horretan oso interesgarriak dira Asturiaseko Auzitegi Nagusiaren 2007ko otsailaren 16ko epaia (3. Zuzenbideko Oinarria), JUR. 2007\217336, eta 2007ko azaroaren 23ko epaia (3. Zuzenbideko Oinarria), LA LEY 286139\2007.

Horregatik, arestian Ikuskatzailetzaren jokabideaz mintzatzean aipatutako aktek aurrera egin ez dezaten, lan-agintaritzza eskudunak, akta horiek aurkaratzen direnean, berehala aurkeztu behar du demanda, ofiziozko prozedurari ekiteko, lan-arloko epaitegi eskudunean<sup>46</sup>. Azken finean, hori arazo judizial bat besterik ez da, Administrazio-arloko ustezko arau-hausteak baino lehenago aztertu behar dena, ebazpen judiziala nahitaezkoa baita administrazio-prozedura zehatzaileak aurrera egin dezan.

Horrela, behin lan-arloko jurisdikzioak kasuaren gaineko eskumena onartuta, epailearen egitekoa ezin muga daiteke Ikuskatzailetzaren akten froga-balioa onartzera, baldin eta aurkako alderdiak akzioa egikaritu eta aurkako froga aurkezten badu, benetako beka dagoela frogatuz eta, ondorenez, arau-hausteen aktek duten egiazkotasun-presuntzioa suntsituz<sup>47</sup>. Are gehiago, aurkako alderdiak aurkeztutako frogen aurrean, Administrazioak kasuan kasuko kontrafroga ekarri behar du auzira, benetako lan-harremanak daudela frogatze aldera. Gainera, horren guztiorren aurrean, epaileak frogaren objektu diren egitateen norainokoa balioetsi behako du, eta hala denean, presuntzio judizialak ere baliatu beharko ditu, eztabaidagarri den arazoa behar bezala ebazteko. Esangura horretan, sarritan, epaitegietan, Administrazioa ez da gai izaten lan-harremanak egiaztatze, edo frogatzeko bekadunak gauzatutako jarduera ez datorrela bat lankidetzaz-hitzarmenarekin edo elkarlanean aritzeko beken deialdian xedatutakoarekin. Eta, halakoetan, epaileak ez ditu baliozkotu behar Ikus-

<sup>46</sup> Ikusi LPLTBren 148 eta 149.1 artikulua. Horren inguruan ikusi, berebat, MONEIRO VÁZQUEZ, Y. El procedimiento de oficio. In VVAA. *Práctica procesal laboral* (MARTÍNEZ GARRIDO, L.R., zuz.). Bartzelona: Bosch, 2007, 2 liburukia, 732-736 orr. «Ofiziozko demanda» hobeto ulertzeko ikusi MARTÍN JIMÉNEZ, R. eta SEMPERE NAVARRO, A.V. Sobre el “procedimiento de oficio” (I) eta (II). In Westlaw.es BIB 2000\453 (Aranzadi Social, 5 eta 6. zk., 2000). Bada, lan horietan egoki azaltzen da LPLTBren 149.1 artikulua araberan ikuskatutako harreman juridikoen izaera zehazteko prozesua.

<sup>47</sup> Ikusi DURÉNDEZ SÁEZ, I. La doctrina de las presunciones y la presunción de certeza de las actas de la Inspección de Trabajo. In *Revista Española de Derecho del Trabajo*, 1995, 45. zk., 100. or.

katzaitzaren aktak<sup>48</sup>. Azkenik, nabarmendu behar da lan-arloko jurisdikzioa ebazpenak, harreman juridiko eztabaidagarrien izaera zehazten dutenak, lotesle direla administrazioarekiko auzien jurisdikzioan hasitako prozesuei begira, hain zuzen, Ikuskatzaitzaren akten ondorioz Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak ofizioz izapidetutako altengatik<sup>49</sup>.

Laburbilduz, unibertsitateetako ikasketen eduki teorikoarekin bat egiten duten esperientzia praktikoak ahalbidetzeko beka-kontratu berezirik arautu ez denez, Ikuskatzaitzak eta auzitegiek zorroztasun gehiagorekin aztertu beharko lituzkete errealitatean ematen diren egitateak; izan ere, boto partikular batek dioena gogora ekarriz, erabakigarria ez da praktikak gauzatzea alokairuko langileen eginkizun berberak izanda edo haien ordutegi bera izanda, ezpada praktiken benetako xedea prestakuntza izatea, egiaztatu beharko dena bekadunaren ikasketak edo titulazioa aintzat hartuta<sup>50</sup>. Halaber, argi utzi behar da errealitate hori aintzakotzat hartzen ez bada gure ikasleek mundu praktikora gerturatzeko aukera galduko dutela. Hori gaur egungo estatu industrializatuen joeraren aurka egitea litzateke, eta gure ikasgeletan ezarritako Bolognako prozesuarekin ere ez litzateke bat etorriko. Egin-eginean ere, hori berori nabarmendu du jurisprudentziak ere, adierazi duenean beken atzean dagoen errealitatea kontuan ez hartzeak berarekin dakarrela «unibertsitateetako prestakuntza teorikoa enpresetako praktikekin osatzeko aukera bertan behera uztea, errealitate horretatik urrunduz gero, praktika-izaerarik gabeko

<sup>48</sup> Azaldutakoa kontuan hartuz behar bezala bideratutako kasu baten adibide moduan ikusi Galiziako Auzitegi Nagusiaren 1993ko otsailaren 4ko epaia (Aranzadi Sozial 1993\737) eta 1995eko otsailaren 15eko epaia (Aranzadi Sozial 1995\590).

<sup>49</sup> Horri buruz ikusi Bilboko administrazioarekiko auzien 3. epaitegiaren 2006ko urtarriaren 10eko epaia, 2/06 zenbakiduna; Bilboko administrazioarekiko auzien 2. epaitegiaren 2008ko ekainaren 4ko epaia, 253/08 zenbakiduna; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salako 3. zenbakidun atalak 2009ko urtarriaren 9an emandako epaia, 8/09 zenbakiduna.

<sup>50</sup> Ana Isabel Molina Castiela andrearen boto partikularra, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2007ko uztailaren 2ko epaian (Aranzadi Sozial 2008\76).



“praktikak” egingo liratekeelako; izan ere, egiten den praktika oro da beste batek aurretiaz egiten duena egiteko, eta errealitate hori aintzakotzat hartu ezean, salaketak jarriko lirateke bekadunari eratzikitzeagatik alokairuko langileek gauzatu ohi dituzten zereginak...»<sup>51</sup>.

---

<sup>51</sup> Asturiaseko Auzitegi Nagusiaren 2007ko otsailaren 16ko epaia (4. Zuzenbideko Oinarria), JUR 2007\217336.

